



SAKANA
HARRO!



Jon Goikoetxea etxarriarra eta Amaia Saez bikotekidea Artea, Lur eta Haitz seme-alabekin. UTZITAKOA

"Borrokatzen segitu beharko da"

JON, AMAIA ETA HAITZ GOIKOETXEA SAEZ SEASKAKO IRAKASLE, IKASLE ETA GURASO Korrikak Azterketak Euskaraz mugimendua omendu du. Jon Goikoetxea etxarriarraren familiak gertutik ezagutzen du aldarrikapena

Eneida Carreño Mundiñano / Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI ARANATZ

Korrikak Azterketak Euskaraz kolektiboa omendu du 2024ko edizioan. Jon Goikoetxea etxarriarraren familiak gertutik ezagutzen du Seaskako ikastolen aldarrikapena. Goikoetxea duela 14 urte Azkainen, Lapurdin, bizi da. Amaia Saez, bere bikotekidea, Baionakoa da, eta bere seme-alabak Azkainen jaio dira. Saez Ziburuko Piarres Larzabal Kolegioko irakaslea da, eta Haitz 13 urteko semeak ere bertan ikasten du; beste bi haurrek ere, Lurrek (10 urte) eta Arteak (7 urte) Seaskako ikastolan ikasten dute.

Nolakoa da iparraldeko hezkuntza sistema?

Amaia. 11 urtera arte ikastolara joaten dira, ondoren 11 urtetatik 15era kolegiara eta hortik aitzina lizeora joan behar izaten dira gure ikasleak, 18 urte bete arte. Gure ikasleentzako aukera bakarra euskaraz segitzeko Baionako Etxepare Lizeoa da, beraz, gehiengo bat Baionara joaten da. **Zer dago Azterketak Euskaraz aldarrikapenaren atzetik?**

A. Gure sisteman bi azterketa nagusi daude, bat 14 urterekin pasatzen dena, Brebeta, eta beste bat, 18 urterekin egiten dena, Baxoa. Aldarrikapen hau aspaldikoa da, ikasle nintzen garaian

mahai gainean zegoen. Zergatik? Eskubidea ematen diguten ikasketak euskaraz egiteko, bai didaktika mailan bai kurtsoetan dena euskaraz errezibitzen dute, baina gero azterketa horiek frantsesez egitera behartu nahi dituzte. Brebetaren kasuan, oker ez banaiz, 1995ean onartu zen matematika eta historia euskaraz erantzuteko eskubidea, orduan zuzendu ahal zitzaizen euskaraz, baina geroztik atzerapausoak eman ditugu. Erreforma bat erori zitzaigun duela sei edo zazpi urte Brebetan zientziak ere sartzzen zituztena; baina atzerapausoak eman dira eta zientziak ez dituzte onartzen. Hala ere, ikas-

leen gehiengo handi batek euskaraz erredaktatzen dituzte azterketak, jakinez gehienetan ez zaiela onartuko zuzenketak egitea. Nota nahiko baztertzailak jaso dituzte. Seaskako sisteman saiatu gara konpentsatzen beste modu batean. Adibidez, iaz onartu zitzaizen euskaraz erredaktatzea, baina aurten arau ofizialak jaso ditugu eta lege berriaren arabera ikasleek azterketak frantsesez jasoko dituzte, eta euskaraz erantzutekoan penalizatuko dituzte. Hori Brebetarekin. Baxoari dagokionez oraindik beste erreforma baten inguruan dago gakoa. Erreforma bat izan zen Lizeoan duela urte batzuk, eta euskaraz aurkezten ahal zizuten hainbat ahozko. Gaur egun ezin dira euskaraz aurkeztu. Are gehiago, gai batzuk, euskara adibidez aukera gisa aurkeztu behar dute, eta ezin dira euskaraz aurkeztu. Kontraesan handiak daude horren inguruan. Hau gertatzen da jakinez Europa mailan lege bat dagoela erraten duena zuk ikasten duzun hizkuntzan azterketak pasatzeko eskubidea duzula. Gu hortik biziki urrun gelditzen gara.

Beraz, zein da egoera?

A. Beste erreforma bat egin dute eta orain arte ikasle batek Brebeta izan edo ez Lizeora sartzeko eskubidea zuen bere ikasturteko batz bestekoa kontuan hartuta. Orain lege berriak idazten ari dira, eta datorrigunaren arabera, datorren ikasturtetik aitzina, Brebeta beharrezkoa izango da Lizeora pasatzeko. Horrek ekarriko du Brebeta ez duen ikasle batek ezingo duela, normaltasunez behintzat, Lizeora pasa. Hau dena zehazteke dago, baina zentzu horretan goaz. Horrek erran nahi du Brebetak ikasle baten ibilbide eskolarak baldintzatuko duela,

"BADAKIGU ARAZOA ERABAKI POLITIKO BAT DELA; BIGARREN MAILAKO BIZTANLE SENTIARAZTEN DIGU"

eta ondorioz gure problematika areagotuko da.

Korrikak Azterketak Euskaraz mugimendu omen du. Zer iritzi duzue?

A. Iritzi baikorra, dudarik gabe. Jadanik mahai gainean zegoen egoera bat oraindik gehiago aitzina eman du, azken urteetan beste gune eta eremu batzuen sostengua errezipitu dute ikasleek eta irakaskuntzak, baina orain Korrikaren pasatzearekin oraindik are gehiago errezipitzen ari gara. Pozgarria da bakarrik ez gaudela sentitzea. Bestalde, erran behar da hemen Iparraldean ikastolen gainean erori den problematikatzat hartzen duela jendeak, eta lehenengo aldiz hemen gure inguruan ikusi dugu beste eskoletan ere Azterketak Euskaraz banderola egiten eta denen eskura dagoen egoera bat dela. Izan ere, problematika ikastolen sistematik aparte dago. Hemen Ikasbi dago, eta ikasle hauek ez osorik baina parte bat euskaraz ikasten duten heinean hauek ere ukituak dira, ezin baitute azterketarik euskaraz egin.

Jon. Korrikaren aurretik Nafarroa Oinezko San Ferminetako gunean txupinazoa bota zuten Azterketak Euskarazekoek, eta beste pausu bat eman da. Gehiago zabaltzen ari da, eta gehiago jakinarazten ari da hemen zer arazo dagoen.

Guraso gisa nola bizi duzue egoera?

J. Gaizki. Gainera, Hegoaldetik etorrita bertan aukera gehiago daudela ikasketak hasieratik bukaeraraino euskaraz egiteko... Honuntza ailegatu, eta egia esan ez nekien nola funtzionatzen zuen; bertan eta barnean zaudean eta ikusten duzunean zer injustizia den ikasketak parte bat euskaraz egin ahal izatea eta gero kontuan hartzen den momentuan, azterketaren notarekin, ezin euskaraz egin ahal izatea, gaizki bizitzen duzu, badakizulako ez dela egoera justu bat.

A. Guraso gisa injustizia handi bat bezala bizitzen dut. Iruditzen zait gure seme-alabei besteei baino aukera gutxiago ematen zaizkiela, eta tristeza iruditzen



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehiu berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



zait nire garaiko borroka bat oraindik mahai gainean izatea. Aukera guztiak daude horrela ez gertatzeko, eta badakigu arazoa erabaki politiko bat dela. Azken finean, bigarren mailako biztanle sentiarazten digu.

Haitz. Niretzat zailtasun bat gehitzea da ikasketa prozesuan, eta gaizki bizitzen dut.

Zertan tokatzen zaizue inplikatzeari?

J. Azterketak Euskaraz mugimenduan egiten diren mobilizazioetan eta deialdietan parte hartuz; manifestazioak, elkarretaratzeak eta egiten diren gauza guztietan. Orain dela urte bat egoitza publikoetan sartzea izan zen, eta Bordelera ateraldiak egin dira bertan Irakaskuntzako prefektura dagoelako eta handik mugitzen da gure zonaldearendako guztia. Ikastolan, Hegoaldean bezala, lan txandak egiten, bulegotan parte hartu, hainbat komisiotan...

Zein da Iparraldeko ikastolen egoera?

A. Orokorrean ikastoletako ikasle kopurua goraka doa. Baina medioak geroz eta txikiagoak ditugu, eta urtez urte erortzen zaizkigun erreformen ondorioz, gure irakaskuntza propioa kinka larrian da. Hemen euskara ez da ofiziala, eta horren ondorioz gure ikasleek hainbat injustizia pairatzen dituzte beste hainbat arlotan.

Nolako etorkizuna aurreikusten duzue?

Haitz: Etorkizun ona baina zaila. Ona, geroz eta jende gehiago doalako ikastoletara eta gehiago inplikatzeko delako. Baina zaila ez digutelako erraz jartzen, eta beraz borrokatzen segitu behar da.

A. Semeak errandakoa. Sinesten dut eredu honetan eta euskaraz bultzeko aukera eta eskubide osoak ditugula Iparralde guztian ere. Aldiz, akigarria dela aitortzen dut, pauso bat aitzina ematen dugunerako bi atzera egiten duelako. Hau eguneroko borroka da.

J. Esan bezala, ona geroz eta ikasle gehiago daudelako, eta gure gertuko kasuan ikusten dugun lehen ikastolarekin lotura ez zutenak, familia euskaldunak baino ikastolarekin lotura ez zutenak, ikastoletan hasten ari direnak. Orduan jendeak sinesten du, eta jendearen inplikazioaren aldetik ona. Baina alde batetik eta bestetik trabak jartzen dituzte, eta lan egin behar da.



Lizarratarrek Korrika itxoiten.

Momentu pozgarriak eta hunkigarriak

Behin pasa omen zen Korrika Lizarragatik, 1980ko hamarkadan. Lizarratarrek modu batean edo bestean euskararen aldeko lasterketan parte hartu izan dute, eta 2019tik kilometroa erosten dute

LIZARRAGA

1190 kilometroan, Etxarri Aranzetik Lizarragabengoako bidean, zubiaren parean, Lizarratarrek egin zuten Korrika. "Herritik pasatzen ez denez, Ergoienak badu beheko basoan lur eremu asko, eta normalean gure lur eremuaren zonaldearen ondoan ematea saiatzeko gara", azaldu dute Idoia Gurrutxarri eta Naroa Etxarri Lizarragako Korrika ardura-dunak.

Behin pasatu omen zen Korrika Lizarragatik: "Egun hauetan galdetzen aritu gara eta gurasoek esan digute behin pasatu zela, txikiak omen ginenean, zehazki ez dakigu zer urtetan, baina gutxi gorabehera 1983. edo 1985. urte horietako batean pasatu omen zen".

"Azpi Iturri txokoak beti AEKri dirulaguntza eman izan dio". Korrikarekiko atxikimendua betidanik egon dela azaldu dute Lizarratarrek, "baina kilometroa erosteara, ez zenez hemendik pasatzen ez zen ezta planteatu ere egin. 2019aren inguruan he-

rritar batzuk bildu ginen, eta zergatik ez dugu kilometro bat hartzen?" Herritarrek, kontzejuak eta soziedadeak, denen artean, kilometroa hartzen dute ordutik. "Herriari bizitasun pixka bat eta euskarari bultzada emateko, ikusten dugulako behar duela". Kilometroarekin jendearen parte hartzea "bultzatzen" dute.

Adei eta Izadi haur lizarratarrek hartu zuten lekukoa 1190 kilometroan, eta kilometroan

zehir txandaka ibiltzen ohi dira Lizarratarrek. "Emozioz" bizi dute Korrika: "Urtero bezala, oso momentu hunkigarria izaten da, eta pozgarria da Lizarratarrok biltzea eta euskararen alde horrelako ekintza polit batean parte hartzea". Aitortu dutenez, "batzuek behintzat", kilometroa bukatzeko "nahiko lan" izan zuten.

Korrika egiteaz gain, aurretik ere ekimenak prestatzen dituz-

te, euskararen aldeko lasterketaren harira: "Aurten ez dugu denbora askorik izan eta afaria eta Korrika Txikia egin dugu. Beste urte batzuetan hitzaldiren bat antolatu dugu, adibidez, Lizarragako hiztegiaren ingurukoa edo herriko zortzikoari buruzkoa".

"Kilometroa joan aurretik normalean soziedadean edo plazan biltzen gara, aurten plazan elkartu gara, eta herriko batek txistua edo txirula jotzen du. Lizarragatik ez denez pasatzen, Korrika eguna dela aditzera emateko bi pieza jo zituen". Oso une polita izan zela esan dute Gurrutxarri eta Etxarri.

Oso polita izango litzateke ere Korrika Lizarragatik eta Ergoienatik pasako balitz: "Aukeran emanda nahiago genuke hemendik pasatzea, baina errealistak izanda portua dagoela ikusten dugu, eta zaila izan daiteke".

IGO FITXATEGIAK INPRIMATZEKO

Bidali zure fitxategiak webgunetik zuzenean

www.txartel.net

OPORRETARA GOAZ!

APRILAREN 8AN IZANEN GARA BUELTAN

guaixe fundazioa



Urritzolarrak Korrika itxoiten.

Korrika egunean ezin etxean gelditu

Urritzolatik gutxitan pasa bada ere, urtero herriak kilometro bat erosten du. Naiara Mariñelarenaren bi urteko alabak eraman zuen lekukoa 1212 kilometro erdian

Erkuden Ruiz Barroso URRITZOLA Korrika Urritzola Arakildik pasa edo ez, herriak kilometro bat erosten duela esan du Naiara Mariñelarena urritzolarrak. Hogei bat biztanle ditu, eta "ilusio handiarekin" parte hartzen dute euskararen aldeko lasterketan. "Euskararen alde gaude eta herriak bere aletxoa jarri nahi du". Duela 30 bat urteko ohitura bat mantendu dute aurren ere.

"Ilusio handia egiten digu Korrika Urritzolatik pasatzeak. Bitan pasatu da, eta ilusio handiarekin hartu dugu, suziriak eta guzti bota genituen". Azken

urtean, 2022ko 22. Korrikan, gainera, "suziriez gainera elurra ere egin zuen, eta gero komeriak izan ziren aldapan gora mugitzeko!". Gogoratu du, barrezka, Mariñelarenak. Korrikako furgonetan elurretan eta arakildarrak bultzatzen bideoa birala izan zen. "Ea gehiagotan pasatzen den, gu hor prest egongo gara".

"EUSKARAREN ALDE GAUDE ETA URRITZOLA HERRIAK BERE ALETXOA JARRI NAHI DU"

Hala ere, herritik pasa edo ez, urritzolarrak ez dira oharkabeen pasatzen, pankarta eta guzti egiten dute Korrikan. Zer da Korrika urritzolarrendako? "Korrika euskaldun guztiak batzen gaituen esperientzia da, sentimenduz eta emozioz betetakoa".

Korrikarako ez omen dute entrenatu urritzolarrek. Mariñelarena, gainera, orain dela gutxi ama izan da bigarren aldiz, eta ezin du oraindik korrika egin: "Baina Korrika egunean... ezin etxean egon korrika egin gabe. Nahiz eta ez entrenatu, egunean bertan, Korrikak egiten duen ilusiogatik edo, indarrak atera-

tzen dira normalean korrika egiten duzuna baino gehiago egiteko".

1212 kilometroan eraman zuten urritzolarrek lekukoa, Satrustegi aurretik ia Zuhaturaino. Nirak, bere alabak, kilometro erdia eraman zuen. "Ilusio handia egiten zigun. Bi urte ditu, beraz, aulkixoan joan zen nire bikotekideak aulkixoa bultzatzen zuela. Poz-pozik eraman zuen". Beste kilometro erdia Sarak eraman zuen, "duela urte eta erdi Urritzolara bizitzera etorritako neska bat".

"Aurten fisikoki oso gaizki joan da, haurrak beraien aulkixoetan eraman genituen, eta esfortzu handiagoa zen... Gainera kilometroa aldapan gora zen!". Mariñelarenak ezin izan zuen kilometroa bukatu, "baina beste urritzolarrek kilometro osoa egin zuten". Normalean kilometro bat baino gehiago egiten dutela esan du, "baina aurten gure kilometroa egin eta guztiok Urritzolara joan ginen elkartean hamaiketako geneukalako".

Maider Betelu Ganboa ALTSASU Martxoaren 17ko asteburuan Korrika Erriberatik pasatzen zela aprobetxatuta, Altsasuko lagun talde batek kilometroa bertan erosi zuen, eta Tuteran asteburu pasa egin zuen. Murchante eta Cascante artean egokitu zitzaaien kilometroa, eta esperientziarekin "liluratuta" daude. Garazi Urrestarazu da lagun taldeko kideetako bat. "Aurretik beste lagun talde batzuekin halakoren bat egin izan dut, Sakanatik kanpo kilometro bat erosi, baina talde honekin lehengo aldia izan zen. Umeak ditugu, elkarrekin egoten gara, eta hurrekin Korrikaren inguruan irteera egitea bururatu zitzaigun, asteburuko plana" azaldu du altsasuarrak.

Azkenaldian Sakanan gaez pasa izan da Korrika, eta haur oso txikiendako ez da oso ordu-tegi egokia izaten. "Gure haur txikiendako ez ziren ordu egokiak, eta aurreko edizioan bezala batzuk aurtengoan ere ez zuten Korrika herrian ikusi behar. Erriberan asteburuan pasatzen zela ikusita, eta egunez, hara jotzea erabaki genuen, pentsatuta agian Erriberan behar handiagoa zegoela, bai kilometroak erosteko eta baita korrikalariak izateko behar handiagoa".

Txundituta geratu ziren Tuteran zegoen mugimenduarrekin. "Ez dut uste kasualitatea izango zenik; Erriberan Euskal Herriko leku ezberdinetako jende pila bat bildu ginen: nafarrak, bizkaitarrak, gipuzkoarrak... Denetarik. Jende mordo gaundean, plan berberarekin: kilometroa erosi, eta Tuteran asteburu pasa egin. Igandean bakoitzak gure kilometrorra jo genuen, baina asteburu guztian zehar Tuteran sekulako giroa egon zen". Tar-

"JENDE MORDOA ZEGOEN TUTERAN, KORRIKAZ GOZATZEKO PREST"
GARAZI URRESTARAZU

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Kalitatea, harrera ona eta prezio ezin hobea



Altsasuko lagun taldea, Murchante eta Cascante artean zuten Korrikako kilometroan parte hartzeko prest. UTZITAKOIA

Lagun taldearekin Erriberara

Altsasuko lagun talde batek, seme-alabekin batera, Murchante eta Cascante artean erosi zuen Korrikako kilometroa. Esperientzia "zoragarria" izan da, eta datorren edizioan errepikatuko dutela argi dute

tean, makina bat kuadrilla sakandar.

Tuteran larunbatarekin Gazte Eguna antolatu zuten Lezoko eta Tuterako gazteek. "Egun guztiko egitaraua prestatu zuten, eta giro aparta zegoen, baina erreallitatearekin ere topo egin genuen. Altsasuko Elektrokela Elektrotxaranga bertan zen, baina Tuterako udalak elektrotxaranga kalera ateratzea eta kalean jotzea

debekatu zuen. Horregatik, inprobisatutako planak sortu behar izan ziren. Elektrotxarangaz ere disfrutatu genuen, baina, tamalez, egun dugun erreallitatearekin ere topo egin behar izan genuen".

Nolanahi ere, udalak ezin izan zuten Korrikari lotutako kaleko festa giroa estali. "Kalean giroa bestelakoa zen; bertakoek, Tuterakoek, eta bertara hurbildutakoek bikain pasa genuen.

Eurek antolatu zuten eguna; handiagoa, masiboago edo txikiagoa, baina Erriberan bada euskararekiko atxikimendua. Nik uste gure parte-hartzea eskertu zutela, gu ere han egoitea eta halako asteburu eder bat gozatu ahal izatea".

Euskararen inguruan Erriberan makina bat taldek lan ordainezina egiten dute. Errigora bezalako kanpainen ere euska-

raren alde bere alea ereiten dute. "Euskararen alde jende asko dabil lanean, oso konpromiso maila handiarekin eta lan bikaina egiten. Hor daude ikastolak, hor segitzen dute lanean, ahal den guztia euskaratzen eta euskalduntzen. Euskara ere entzuten da Tuterako edo Erriberako kaleetan. Noski baietz. Giroan antzematen zen, beste ilusio bat, beste atxikimendu bat".

Errepikatzeko modukoa

Altsasuko taldeari Murchante eta Cascante artean egokitu zitzaizen kilometroa. "13:12ean genuen ordua, baina Korrika pixka bat beranduago etorri zen. Pila bat disfrutatu genuen, oso kilometro polita izan zen". Hurrek, zer esanik ez "oso-oso ongi pasa zuten. Korrika girtzen eta alaitzen furgonetako kideek lan handia egiten dute. Kilometroan lekukoa hartu, umeek euren artean lekukoa txandakatu zuten, eta oso gustura ibili ginen". Beroa izan

zen protagonista. "Hemengo udako egun onenean izan dezakegun eguraldia izan genuen". Ondoren, Hiru Herri atletismo taldeari pasa zieten lekukoa. "Haiek gu baino finago ibiliko ziren, ziur (kar-kar)". Hurrengo kilometroa ere oso berezia izan zen, Nafarroako trabestiena. "Bertara iritsi nahi genuen, baina hainbeste umeekin eta entrenamendu gutxirekin ezin izan genuen. Oso kilometro polita izan omen zen".

Esperientzia "oso ona" izan da, "hurrengo batean errepikatzeko modukoa. Datorren Korrikarako plana eginga dago. Ez dakigu nora joango garen, non pasako den Korrika asteburuan, baina nora-bait joango gara. Hori oso argi dugu".

"OSO ONGI PASA GENUEN. DATORREN KORRIKAN ERE NORABAIT JOANGO GARA"

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70

📍 @Grupolrache

📺 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



Sakanako AEK-n euskalduntzen ari den taldea.

Eta horregatik euskaltegira goaz gu egunero

Korrikak ibarra zeharkatu eta ondorengo egunean jo genuen AEK-k Altsasun duen ltsasi euskaltegira. 2B-1 mailakoen gelara pasa gara. Ikasketa prozesuaz galdetuta, aho batez erantzun dute, baietz, aurrera egiten ari direla

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Jon Sarasuaren hitzei doinua jarri zion Oskorrik. *Euskaldun berriaren balada* kantuan ikasle batek hizkuntza ikasteko bere motibazioak, poz eta penak aieratzen ditu. Melodia buruan hartuta, euskaltegian opatu ditugu Juakina Zubiria Galarza, Jokin Zelaia Oiarbide, Andrea Imaz Askargorta, Milagros Aldasoro Sarasua, Peio Errazkin Setuain, Txaro Martínez de Eulate Garralda, Iñaki Urrestarazu Zabalo eta Ana Garisoain Ibañez opatu genituen bertan. Batzuk bezperan Korrikan pixka bat laster eginda, beste batzuk ez, leihotik begira egon ziren. Eta zuzeneko emanaldiaren bidez guztiek ikusi zuten Korrika.

Aurreko euskara ezagutzaz

Garisoain "aspaldi" gau eskolan lau urtez egon zen. Utzi eta due-

la lau urte ekin zion euskara ikasteari. Martínez de Eulate gaztetan euskara ikasten hasi zen, baina gero utzi zuen. Euskara ikasketei duela bost urte berrekin zion. Errazkin "ideiaren bat bazuen" ere, zerotik hasi zen ikasten. Irintarrak guraso euskaldunak zituen, euskara erakutsi zioten. Baina Iruñera ikastera joan eta han erdaldundu zen. Gainera, gurasoak gaztelan hitz egiten zioten, eta, azkenean, ahaztu egin zitzaion.

Aldasorok "txikitan" euskaraz hitz egiten zuen, baina eskola gaztelan hitz egiten zenez, pixkanaka

"EUSKARA JAKIN, EUSKARAZ IRAKURRI ETA BURMUINA MARTXAN MANTENDU NAHI DUT"

ahaztu zuen. Eta duela bost urte-edo bueltatu zen euskara ikastera. Imazek txikitan bazekien. Donostiatik Altsasura etorri eta ez zuen euskararekin jarraitu. Ikasturte honetan "pixka bat berreskuratzera" joan da AEK-ra. "Pozik nago, dagoeneko lotsa kentzen ari naiz". Zelaia txikitan euskara bazekien, baina nerabezaroan fraidetan ikasi eta ahaztu zuen. Lagunekin, gainera, beti gaztelan hitz egiten da. Dagoeneko hirugarren aldia du euskaltegirako bidea hartu duena. "Lotsa eta urduritasuna kentzen ari naiz, gogorra baita". Zubiria urdindarra da eta bere gurasoek gaztelan ez zekiten. "Haien artean euskaraz hitz egiten zuten anaia eta biok ez ulertzeko. Anaiak itzultzeko eskatzen zidan". Euskaltegian sartu eta atera ibili da, batzuetan lanagatik utzi behar

izan zuen ikasketak. Baina berriro heldu die.

Zergatik euskara ikasi

Zubiriak euskara jakitea nahi duela adierazi du. Irakurtzea ere motibazioa da, "nahiz eta zailagoa den". Beste arrazoia da "burmuina martxan mantentzeko. Hori oso garrantzitsua da". Zelaia euskara ikastea du helburu, baita ohitura berriak hartzea, jendea eta giro desberdinak ezagutzea eta burua lantzea ere. Imazi "pena" ematen zion euskara guztia ahaztea. "Erronka handia da. Ingelesa dago, etxean ikas dezakezu. Baina euskararekin ez da berdina, ikasi nahi izanez gero hona etorri behar duzu".

Aldasorok euskaraz ondo hitz egin nahi du. Eta irakurri, eta burua argi izan. "Dena pakete berean dago". Errazkin, berriz, "batez ere" alabekin eta ilobekin euskara hitz egin nahi du. Bere inguru ia erabat erdalduna dela jakinarazi du. Martínez de Eulate Oteizakoa da eta Donostian zituen lankideen bidez euskal kantak ezagutu zituen, eta itzultzeko eskatzen ibiltzen zen. "Beti barruan gordeta nuen. Hona bizitzera etorri, seme-alabak ikastolara eraman eta pixka bat ikasten hasi nintzen. Baina lana, etxea... ez nuen denborarik". Jubilatutik denean jo du euskaltegira. Euskaraz hitz egiteko joera eta jarrera du: "ez daukat lotsarik, pixka bat ausarta naiz. Batzuetan aditzak nahasten ditut". Euskara ikastea bere betidaniko ametsa izan dela nabarmendu du. Garisoainendako euskara "gainditu gabeko irakasgaia izan da beti. Euskaraz ari den jendea entzuteak inbidia handia ematen dit", aitortu du.

Euskara praktikatzeari

Guztiak euskara ikasteko bide bera erabili dute: euskaltegia. Euskaltegian poliki hitz egiten dute euskaraz, baina handik kanpo horretarako aukerarik baduten jakin nahi izan dugu. Zubiriak azaldu duenez, koadrilako batzuekin euskaraz hitz egiten du. "Gehiago posible litzateke, baina tira". Zelaia okin-

"EZ DAUKAT LOTSARIK, PIXKA BAT AUSARTA NAIZ. BATZUETAN ADITZAK NAHASTEN DITUT"

degian eta koadrilako lagun batekin hizketatzen da euskaraz. Udalean zinegotzia da eta han bi hizkuntzatan hitz egiten hasi da. Imazek aitortu duenez, koadrilan ez dute euskaraz hitz egiteko ohiturarik, "eta badakite euskara, baina..." Batzuek besteek baino gehiago dakite "etxean hitz egiten dutelako. Besteek ez, eta kalean aritzea zaila da". Aldasorok, berriz, seme-alabekin "pixka bat" hitz egiten du. Anaiak euskaraz hitz egiten dute, baina berak ez du ohitura hori. Hala ere, "pixkanaka-pixkanaka" hasiko dela ziurtatu du. Errazkinen alabarekin hitz egiten du euskaraz. Noizean behin tabernan. Martínez de Eulatek etxean pixka bat hitz egiten du. "Kalean norbait ezagutu eta euskara baldin badaki, berarekin ere hitz egiten dut". Gainera, Mintzakide taldean "oso gustura" dago, "hasieran ordu bat egoten ginen, baina, orain, egun batzuetan bi ordu edo bi ordu eta erdi ere egoten gara". Garisoain ere Mintzakide talde batean dago. Han "oso pozik" dago, "giro oso ona dago. Lauzabost elkartzen gara, kafetxo batekin". Garisoainek jakinarazi duenez, kalean gutxi hitz egiten du, baina klasean tratua dute eta hura "zorrotz" betetzen du. Klase kideek gaineratu dutenez, ETB1 ikusten dute. "Irratian oso azkar hitz egiten dute", aitortu digute.

Garisoainek azaldu duenez, koadrilan batzuk badakite euskara, "baina gaztelan hitz egiteko ohitura hartuta daukagu". Tarteka esaldiren bat partekatzen dute. Dendetan eta tabernetan ere hitz egiten du. "Baina normalean, erdaraz". Errazkinen eta Martínez de Eulateren lagunak erdaldunak dira. Beraz, beste pertsonekin hitz egiten dute euskaraz. Kideek Imazi proposatu diote lagunekin egun bat jartzeko euskaraz hitz egiteko. Pintxo pote garaia izan daitekeela gaineratu dute. Zelaia inguruko euskaldunei berari gehiago hitz egiteko eskatzen die, baita hitzak sartzeko, egunero ohiturak hartzeko. Zubiriaren lagunak behin baino gehiagotan hitz egiten dute, eta berari ere hitz egiten diote. "Badakite agian ez dudala ongi erantzun, baina dena ulertzen dudala". Nabari dela esan du. Euskaraldian parte hartu izan dute, eta heldu den udaberrian ere jarriko dute txapa.

"Euskara praktikatzeko ez dugu mugitu beharrik"

IGOR LANZ RAPUN EUSKARA IKASITAKOIA

Korrika pasata, satrustegiarrak bere euskalduntze prozesua nolakoa izan den eta den azaldu digu

Alfredo Alvaro Igoa SATRUSTEGI

Euskaraz daki eta euskaraz ederki hizketatzen da Igor Lanz Rapun. Baina beti ez da horrela izan. Milaka herritar bezala berak ere bere burua euskaldundu du.

Zergatik erabaki zenuen euskara ikastea?

Arrazoi handiena, segur aski, hemengo jendearekin gure hizkuntzan hitz egitea da. Eta beti izan zen arantza bat nire bihotzean. Nire familia euskalduna da, aitona lakuntzarra eta amona satrustegiarrak. Amonak ezin zuen euskara asko hitz egin; politte, ondarrak, horrelako hitzak bai. Nire lehengusuek, adibidez, txikiak zirenetik. Haiek hitzak edo txisteak esan, nik, arrebak edo amak ezin genuen ulertu eta beti izan da behar bat. Politte, puzkerra, ez dakit... Lehengusuegandik hori ikasi nuen. Kasualitatez, edo ez, kanpoan ibili ondoren eta ingelesa ikasi ondoren, euskararekin hasteko garaia iritsi zen. Orduetik horrela gabilta, beti aurrera, eta mingaina kanpoan ahal dugunean. Zeretik hasi ginen.

Aurretik zer harreman zenuen hizkuntzarekin?

Ama Aragoikoa da. Han hasi ginen eskolan. Estatuko hainbat lekutan bizi izan ginen. Ez genuen aukera euskara ikasteko. Hamar urterekin Zizurrera bizitzera iritsi ginen.

Nola ikasi zenuen euskara?

Euskara ikasteko denetarik egin genuen, online izan ezik. Horretan saiatu nintzen baina ez zait batere gustatzen. Gure seme-alabak txikiak zirenean hasi ginen aldaketa egiten, eskolara joan behar zutenean. Bi urtez egon ginen astean behin ordu bat euskaraz hitz egiten, eta beste bat ingelesez; emakume batekin lehenik, neska batekin ondoren. Bi urtetan, hitz egiten ez dakit nola hasi ginen, ausartu ginen; bai, ez, aditzak. Horiekin oraindik kili-kolo gabilta, baina ho-



Igor Lanz Rapun Satrustegijako auzola iturriaren ondoan.

rrera hasi ginen. Poliki-poliki hasi ginen hitz egiten. Ikusi genuen prozesua oso motela zela. Ondoren euskaltegiara joan ginen, lehendabiziko urtea Euskarabidean eta ondoren Irurtzunen, AEKn. Seme-alaben adin bera daramagu euskara ikasten, 10 urte gutxienez, tiki-taka, tiki-taka. Hasieran pentsatu genuen, gizajoa ni, haiekin ikasiko genuela. Guk beste hizkuntza ikasketak paraleloa egin ahal genuela uste genuen. Ezta pentsatu ere. Haiek ziztu bizian txirrindula indartsu batekin hasi ziren ikasten, super azkar eta gu gure tri-

"KANPOAN IBILI ETA INGELESA IKASI ONDOREN, EUSKARA IKASTEKO GARAIA IRITSI ZEN"

ziklo txiki batekin ttiki-ttiki, ttiki-ttiki, poliki-poliki. Badakigu lasterketa hori galduta daukagula hasiera-hasieratik. Baina bakoitza bere erritmoan.

Trabarik bidean?

Segur aski nire oztopo handiena aditzak dira, eta lehen aldia.

Laguntzarik?

Nik beti pentsatu dut hizkuntzak ikasteko kanpora joan behar ginela, praktikatzeko eta hango jendearekin hitz egiteko. Euskara praktikatzearen gauzarik hoberena da ez dugula mugitu beharrik. Hemengo jendea beti-beti sumatu genuen, hasiera-hasieratik, pazientzia handiarekin; eskertu zuten gure ahalegina. Ez dugu inoiz ikusi aurpegi txar bat. Gu hasten baldin bagara euskaraz inor ez da erdarara aldatu, ez telefonoz, ez lanean. Orain moldatzen gara, gure akatsekin, baina moldatzen gara. Baina pentsa orain dela 10

urte. Hizkuntzak ikasteko praktikatu behar dugu, gure garuna, behintzat nirea, ez du ikasteko beste modurik. Beraz, hori eskertzen da eta beharrezkoa da. **Hasiera hasieratik hizkuntza erabiltzen, beraz.**

Bai, bai. Gu horrela hasi ginen. Nik sekula ez dut txikitzen euskara eskolan ikasi. Genekienarekin hasi ginen hitz egiten. Ondoren konturatu ginen -tzen lehen aldia zela eta iragana adierazteko edozein gauzatarako erabili nuen. Gure modura, poliki-poliki. Beti ausartu ginen, hori bai; guretako hori abantaila bat zen. Baina, egia esan, hizkuntzak ikastea ez zait batere gustatzen. Ahalegin hori ere egiteke dago oraindik: jarri taula horiek, saiatu, ikasi, praktikatu nire kabuz eta ez dut hori egiten; beti kalean. Azkenean, jendearekin harremanak izatea da tresnarik hoberena. Satrustegin helduek gutxi hitz egiten dute euskaraz. Nire birraitonak eta birramonak ikasi zuten, amonak galdu zuen. Aitak den-dena ulertzen du, baina nik bera baino gehiago hitz egiten dut. Hobe agian ez, berak Lakuntzako hitz polit horiek dakizki. Nik horiek noizbait ikasiko ditut.

Zer aholku emanen zenion euskara ikasten ari denari?

Ziur nago jendeak bere burua ezagutzen duela; bakoitzak dauka bere tresnak, bere estrategiak. Baina niretzat inportanteena: praktikatu, ahal dugunean euskaraz bizi eta edozein euskaldun topatzen dugunean beti euskaraz hitz egin. Niretzat puzzle bat bezalakoa da. Pieza batzuk bakarrik neuzkan poltsikoan eta neuzkan piezak bota nituen, eta berak, euskaldunak, esaldia osatzeko bilketa egin behar zuen. Eta horrela hasi ginen elkar ulertzen, komunikatzen.

Gutxierekin komunika daiteke?

Bai. Niretzat inportanteena hori da, ez dakit ausardia den ala ez, baina, gutxienez, beldurra kendu eta praktikatu. Euskaldun guztiek eskertzen dute ahalegin hori. Eta handik aurrera ahalik eta azkarren pieza horiek hobetu, konpondu eta gainditu.

Zer eman dizu euskara ikasteak?

Poztasun handia. Bereziki gaur egun nire familiarekin hitz egitea, oso hunkigarria da. Eta, egia esan, hitz egitea praktikatzek lana ere. Guk haur jolasak, scape room edo ihes gelak eta hainbat ekintza prestatzen ditugu. Askotan guk lan egiten dugu euskaragatik. Bai euskara zerbitzuek edo herri euskaldunek deitzen digute, hitz egiten dugulako eta hasiera-hasieratik saiatzen ari ginelako. Gogoratzen dut gure lehenengo aldietan Etxalekun, umeendako jolasak prestatzen, hasi ginen: "arratsalde on, guztioi!". Eta gero umei galdezka jarraitu nuen: "nola esaten diozue horri? Zer da hori? Itzala. Hori itzala esan nahi nuen". Hasi nintzen, hasi nintzen eta handik aurrera udalak edo instituzio guztiak ikusi zuten gure euskara maila eta ez zuten arazorik ikusi. Telefonoz hitz egiten beti esaten nien: "badakizu zer euskara maila dudan nik, zenbat akats egiten ditudan, baina ekin-tzak funtzionatzen du eta ongi joango da. Bai, bai. Horregatik arazorik ez". Titulitis hori inportantea da, baina guri ez digu inork titulurik eskatu. Baina behin jarrita, guretzat ikasteko beste modu bat da ikasteko, beste aitzakia bat ikasteko, beste bultzada bat ematea eta azterketak gainditu ditugunean sorbaladan emandako zapladatxo baten modukoa da. Azkenean bi motibazio horiek daude.


EGURDIAN
sutarako egurra
608 57 03 57
etxea berotzeko ezinbestekoa

Txalaparta

Taberna
948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

1.

Zergatik erabaki duzue Korrikan parte hartzea?

2.

Zer garrantzia du euskaraz zuen barne dinamikan?

3.

Korrikaz aparte, zer gehiago behar du euskaraz?



ZIORDIA

"Gaztetxea euskaraz oinarritzen da"

XABIER BENGOTXEA IJURRA ETA UNAI LASA LIZARRAGA
ZIORDIKO GAZTE ASANBLADAKO KIDEAK

1. Guztiok parte hartu behar dugu halako ekitaldietan. Eta gazte asanblada izanda, are eta gehiago.

2. Garrantzia osoa. Asanblada guztiak euskaraz egiten dira. Euskararen aldeko ekimenak egiten badira, parte hartzen dugu. Azkenean, gaztetxea euskaraz oinarritzen da.

3. Dantza, musika eta dena. Hizkuntzari bizia ematen dion guztiaren beharra du. Eta ematen diogunok baita.



URDIAIN

"Dakigunok ez badugu erabiltzen, ez dakienak ez du erabili behar"

XABIER BERAZA MAIZA ETA GORKA MINTEGI MAZURRIAGA
MAGOTTEAUXEKO LANGILEAK

1. G. Urte asko daramatzagu kilometroak erosten, bai guk bai enpresak. Azkenean, AEK-ren euskararen aldeko lana goraiatzea da, eta ekonomikoki pixka bat laguntzea.

2. X. Enpresa batzordea saiatzen da beti komunikatu guztien itzulpena egiten. Langile batzuek euskaraz hitz egiten dute.

G. Saiatzen gara beti dena ele bitan egiten. Ez dugu beti lortzen. Kostatzen zaie batzuetan euskara erabiltzea. Poliki-poliki lortuko dugu.

3. X. Etxetik hasten da. Hortik aurrera, badakigu zen den: erabiltzea.

G. Dakigunok erabili egin behar dugu. Dakigunok ez badugu erabiltzen, ez dakienak ez du erabili behar.



IRURTZUN

"Saiatzen gara herrian euskaraz eragiten"

HAIZEA URRRA ALBIZU
ORRITZ DANTZA TALDEA



ARBIZU

"Euskaraz egunero hitz egin behar dugu, jende guztiak"

CARLOS ALONSO BARRANCO ETA YOLANDA NAVARRO LAKUNTZA
ALDABIDE ELKARTEA

1. Y. Euskararen aldeko mezua lau haizetara zabaltzen laguntzea nahi dugulako.

2. C. Arbizun ia-ia dena euskaraz da. Elkarteko batzarrak eta guztia euskaraz da.

Y. Elkartean euskaraz egiten da, bilerak, kartelak, denak euskaraz daude. Euskal kultur ekintza batzuk bertan egiten dira, bazkari-mahai inguruan.

3. Y. Erabilera sustatzea, euskara funtzionala izatea beharrezkoa da, ez soilik sinbolikoa. Derrigorrezkoa da neurri egokiak hartzea, hizkuntza minorizatuen aldeko politika egitea, eta Nafarroan behingoz, euskararen zonifikazioa bertan behera uztea.

C. Korrika bi urtero bada ere, euskaraz egunero hitz egin behar dugu, jende guztiak.



IHABAR

"Oso gauza polita eta hunkigarria da"

MIKEL ETXARTE ARANGOIA, AINARA ESCUDERO JAIA ETA IDOIA IRURTZUN ARTOLA
LAGUN KUADRILLA

1. I. Oso gauza polita eta hunkigarria da. Beti parte hartu izan dugu.

2. M. Batzuetan erabiltzen dugu, besteetan ez. Denetarik. Badago oso ongi moldatzen ez den baten bat, eta orduan gaztelaniara pasatzen gara. Batzuetan saiatzen gara.

A. Pilak jarri beharko ditugu, gero eta gehiago hitz egiteko.

3. I. Geroz eta jende gehiagok erabiltzea. Eta dakienak birri-barra ibiltzea euskaraz.

M. Erabili egin behar da, ez galtzeko.

A. Hitzun gehiago izatea. Zabaltzea. Eta hainbat lekutatik hizkuntza babestea ere.

euskaraz bizitzea. Egin izan diren bidaiak euskaraz egin dira. Orritzen identitatea euskara da. Arlo eta adin desberdinetako jende asko elkartzen gara eta guztiek komunean zerbait dugu: euskaraz aritzen gara ahal dugun heinean. Saiatzen gara herrian euskaraz eragiten.

3. Garrantzitsua ez da ez dakitenek ikastea, hori ere garrantzitsua da, jakina. Baina euskaraz bulkada handi bat behar du, bereziki dakigunona. Egunerokoan gehiago erabili behar dugu.



ARBIZU


"Esnekiak egiteaz aparte, euskara oso-oso presente daukagu"

ABERRI BARANDALLA FERNANDINO
JEINGENEKOA ESNEKIAK

1. Korrikan parte hartzen dugu beti, baina badira urte batzuk km hartzen dugula. Eguneroko erreminta bat da gure euskara. Sentimendu bat ere bai. Eta erronka bat ere, bai lanean, bai pertsonalki, baita bizitzan ere; beti bizi izan duguna. Gaur ospatzeko eguna da. Eta berriro ere indarrekin aurrera segitzeko.

2. Gurasoengandik hasita, beti bizi izan dugu euskararen garrantzia beste hizkuntza guztien gainetik. Lan munduan saiatzen gara ahal den guztia, oztopo guztien gainetik, euskara bulkatzen. Gu esnekiak egiteaz aparte, euskara oso-oso presente daukagu. Langileen artean euskaraz egiten dugu, denok euskaldunak gara. Haserreak ere egoten dira bakarren batek joerarengatik erdaraz hasten denean. Bai Euskarari eta horrelakoetan parte hartzen dugu. Baina beti egoten da non hobetu. Administrazioarekin zaila izan dugu, oztopo asko izan ditugu, arazoak ere, disgusturen bat ere, isunen bat ere. Baina, beno, euskaldunok buru gogorren fama badaukagu, eta horrela segi dezagun.


3. Korrikak pizten duen sentimendu, ilusio eta konpromisoa iraunkorra izatea buru gogortasun pixka batekin, administrazioak nola gizarteak biak euskarari jartzen dioten oztopoei aurre egiteko.



æek
23.korrika



Kolorezta ezazu marrazkia



**KORRIKAKO
DENBORA-PASAK**

23. KORRIKAKO MEZUA

Garazi Arrula Ruiz

Korrika da herri bat gose iraun baino, ❶ _____.
Herri anbiziotsu bat ez baita husten agiritan.

«Mintzairaren seta guk dugu, erromantiko porrokatuok, pikuan bizi garenok, ❷ _____». Halaxe zioen, ironiaz, zozo egoskor batek.

Hegazti harrapari guztiek ehizatzen dute zozoa, gautarrek nahiz ❸ _____. Ez omen du primaderan kantatzen, eta gure lurretan urriago dira pinu eta eukalipto birlandaketetan, tokiko baso autoktonoetan baino. Arrainak ura, eta euskarak ❹ _____ osoa. Hizkuntzaren dimentsio guztiak izan ditzan hiztunak, gizartearen arlo oro busti beharko du hizkuntz-politikak: basoak, soroak, ❺ _____, lantegiak, pantailak, iruditeria. Egunerokoa hartu behar du biziko bada, Beskoitzen, Eguesibarren zein Bizkarsoro orotan.

Baina hemen gara, zozoan elean.

Ez altxor, ez oroitarri, ez toponimia. Euskarak ❻ _____ hartzeaz ari gara.

Ez agur bat, ez txapa bat paparrean, ez lur zatitu bat.

Ez da fenomeno meteorologiko bat, ez gastronomia huts, ez borondate libreko kontsumogai.

Ez da ❷ _____ bilgarria, ez trukerako txanpona.

Ez da beste, ez besteena.

Eta batez ere, batez ere, ez da diskriminazio iturri, ez inposizio.

Bedi gutxiago konpetentzia, eta gehiago konpromiso, norabide, zeharlerro, harrobide.

«Gutarik bakoitzak anitz ❸ _____ ukan ditzake; euskarak gu baizik ez gaitu». Halaxe

zioen beste zozoren batek.

Nor izatearen aitortza, horixe dugu euskara: ez gehiago, ez bestelako, ez ❹ _____.

Oxala, hizkuntza bat balitz, eta fini.

Bestela esanda, ez dugu hazkunde lasterreko espezieen industria laborerik nahi, tokian tokiko ❺ _____ nahi ditugu, hangok eta hemengok babes hartzeko eta bere egiteko, non zozoak izanen duen non kukutu, ibaiak nora isuri, ondoak zeri heldu, eguzkiak zer urtu.

Kontingentzia planik ez: egiazko

❻ _____ nahi dugu.

Eta izanen bada, kolektiboa, antolatua eta lotsagabea izan beharko du.

Elkar zainduz, bidea bizigarri eginez. Afektuaz ere ari baikara, afektatzeaz. Konplexurik gabe. Erabakitaz bezala ahizpatasun haizez.

Tinko eta fermuki, ados, baina amultsu, narras, hauskor ere bai.

❺ _____ pasako baita, halabeharrez. Desira bada transmisiorako bide behinena, ez dugu ahazteko hizkuntzaren auzia politikoa dela. Eta urgentziazkoa. Desira historia batean hasten da. Gurea egunero idazten, kontatzen, egiten gabiltza, gero bat gaurdanik sortzen, euskarari bere lekua munduan eta geroan finkatzen. Mundu oso bat kabitzen baita euskararen. Noranahiko, euskaraz gara.

Udaberrian ere ❻ _____ dugu zozook. Bizi gareino kantatuko dugu; bizi deino, herri honek euskara dantzatuko du.


Esna dadila ❷ _____, zeren kea usaindu duelako izanen da, eta guk badakigu sua egiten.

Biba korrika, harro herria!

- ❶ hozka, haginka, ostiko
- ❷ zozook, beleok, otxoak
- ❸ goizetarrek, gauekoek, egunekoek
- ❹ ekosistema, ingurugiro, mundu
- ❺ etxeak, plazak, hondartzak
- ❻ hegemonia, zentrua, nagusitasuna
- ❼ txirri-txirrizko, brilli-brillizko, brillozko

- ❽ emozio, hitz, hizkuntza
- ❾ gutxiago, gehiago, ederrago
- ❿ mendiak, baratzak, basoak
- ⓫ hautsura, iraultza, trantsizioa
- ⓬ Gorputzetik, Ahotik, Muturretik
- ⓭ dantzatuko, kantatuko, txiokatuko
- ⓮ piztia, txoria, herria



Ze herrietatik igaro zen Korrika?



U	Y	U	E	R	E	M	M	M	A	R	G	A	Z	A	E	P	P	F	N
T	N	L	G	J	V	W	L	B	J	L	Q	H	M	L	B	U	M	T	F
D	O	E	D	A	Q	K	Y	E	T	J	F	U	A	R	V	S	J	A	G
E	T	P	U	A	O	Z	C	O	Z	I	B	B	E	T	I	A	L	Z	Z
L	R	N	V	X	P	C	V	N	E	O	A	I	P	G	F	T	K	F	D
N	B	I	H	F	P	Z	B	A	I	Z	M	B	B	A	S	B	Q	R	F
Q	I	A	T	N	D	W	E	H	R	A	C	K	P	E	L	A	J	K	K
L	U	U	N	Z	K	D	B	A	O	U	O	R	Z	Z	W	N	Y	J	Q
V	R	M	M	O	E	R	L	E	S	Y	J	Z	O	G	O	O	X	V	J
A	R	E	I	R	I	G	S	K	X	J	Z	I	T	N	I	B	O	M	G
B	U	Q	I	N	S	A	O	T	O	H	I	T	R	N	G	R	D	V	G
G	N	O	R	B	K	A	B	I	M	I	B	T	D	W	I	A	N	F	Y
G	A	F	I	I	N	A	I	Z	T	R	U	T	N	A	S	L	O	R	J
P	O	T	J	R	C	K	N	G	Q	I	R	K	B	W	H	A	U	R	I
I	O	I	Z	V	U	I	Y	P	R	J	U	N	P	J	Z	G	D	L	G
P	P	M	R	A	H	N	O	Z	E	U	R	W	P	L	F	Y	L	H	W
P	U	C	L	R	G	D	Z	P	U	Z	M	A	Z	L	D	W	A	R	I
K	X	K	T	I	O	A	I	T	Z	H	U	C	T	Y	V	I	Z	Y	K
Z	O	E	Y	L	C	L	N	B	Z	X	W	C	D	B	T	M	B	L	L
D	J	X	I	F	S	F	E	Z	S	B	N	A	B	A	S	K	O	Z	E


- Arbona
- Azagra
- Baiona
- Biurrun
- Derio
- Elorrio
- Eritzegoiti
- Faltsez
- Gatzaga
- Irun
- Larzabale
- Lezo
- Lintzoain
- Kanpezu
- Murgia
- Nabaskoze
- Santurtzi
- Ugao
- Zalduondo
- Ziburu

SUDOKUAK



ZE URTEETA KOA DA?








Non daude Euskal Herriko herri hauek?



GU RU TZE GRA MA






Horizontalak

- 1. ... Dantza taldea, argazkiko Iskidiko izaki mitologikoak parte diren taldea.
- 3. Ane ... argazkiko Korrikako koordinatzailea.
- 5. 3. Korrikako leloa 'Euskaraz eta ...!'.
- 8. Jose Maria ... lehen mezua sartu zuen argazkiko euskaltzaina (baina Bilbora heldu eta lekukoa zabaldu genuenean ez zekarren mezurik).
- 11. 10. Korrikako 'Euskal Herria Korrika' abestia egin zuen argazkiko taldea.
- 15. Javier ..., urtero lore eskaintza egiten dioten zendutako gaztea.
- 18. 17. Korrikaren leloa.
- 19. Lekukoaren barnean doana.
- 20. Currilingua Korrikaren antzeko ekimena egiten den herrialdea.
- 21. ... Lamur, Korrikako aurkezpena egin zuen klowna.
- 23. 23. Korrika bukatu den hiria.
- 25. ... elkarte, 1200. kilometroan korrika egin zuten.

Bertikalak

- 2. Korrika ..., eskolek herrietan antolatzen duten Korrika.
- 4. Sakanako euskaltegia.
- 6. San ... museoa, lehenengo Korrika gordeta dagoen lekua.
- 7. Aitor ... argazkiko Sakanako Korrikako koordinatzailea.
- 9. ... Euskaraz! aurtengo Korrikako omenduak.
- 10. 22. Korrikaren leloa.
- 12. 14. Korrika hasi zen Nafarroako herria.
- 13. Korrika ..., Korrikaren inguruan egiten diren ekimenen izena.
- 14. Lehenengo Korrika atera zen herria.
- 16. Sakanako Mankomunitateak 25. urteurrena dela eta kilometroa eskaini zion irratia.
- 17. Sakanako lehen kilometroak egin zituen herria.
- 22. Korrika antolatzen duen erakundea.
- 24. ... Herri, aurtengo Korrikako leloa.





1155 Amarauna elkartea



1156 Ziordiko Gazte Asanblada eta Ziordiko elkartea



1157 Ziordiko Udala



1158 Sakana Kooperatiba



1159 Iñigo Aritza Ikastola I



1160 Olatzagutiko Gazte Asanblada



1161 Olatzagutiko Udala



1162 Copreci



1163 Unamuno Pentsuak



1163 Kukuerreka elkartea



1164 Altsasuko Udala



1165 Altsasuko Gazte Asanblada



1166 Iñigo Aritza Ikastola II



1167 Zelandi eskola



1168 Altsasuko Dendari Elkartea



1169 Ramoseko langileak



1170 Altsasu BHI



1171 Larrañeta elkartea



1172 Urdiaindarrak



1173 Urdiaingo Udala



1174 Urdiaingo elkarteak



1175 Magotteauxeko langileak



1176 Mekalsako langileak



1177 Iturmendiko Udala



1178 Iturmendiko elkarteak, Gaztetxea, Eskola...



1179 Bakaikuko elkartea



1180 Bakaikuko Udala



1181 Bakaikuko Gazte Asanblada



1182 Karriestu elkartea



1183 Hartzabal elkartea



1184 Jeingenekoa esnekiak



1185 Andra Mari ikastola



1186 Etxarri Aranazko Udala



Harro herri,
gora korrika,
gora herria!





1187 Etxarri Aranazko eskola



1188 Etxarri Aranazko Gaztetxea



1189 Eseki



1190 Lizarragatarrak



1190B Baiza motor



1191 Lizarragabengoako Kontzejua



1192 Arbizuko Udala



1193 Arbizuko eskola



1194 Lakuntzako eskola

INGENIERITZA
INDUSTRIALA
HORNIDURA



eseki@eseki.com

948 46 11 35

Pol. Ind. Zumurdiñeta 20, Etxarri Aranatz, Navarra

www.eseki.com

www.esekirenovables.com



1195 Lakuntzako Udala



1196 Lakuntzako Pertza elkarte eta Biltoki



1197 Arbizuko Gazte Asanblada



1198 Arruazuko Udala



1199 Bikain garajea



1200 Aldabide elkarte



1201 Uharte Arakilgo Udala



1202 Aralarmendi elkarte



1203 Andra Mari ikastola



1204 Andra Mari ikastola II



1205 Irañetako Udala



1206 Irañetako Euskara Taldea



1207 Sakanako Mankomunitateak BELEIXE IRRATIARI eskainia



1208 Ihabarko Kontzejua



1209 Ihabarko kuadrilla



1210 Txitera eta Hiriberriko Kontzejua



1211 Hermanos Guerra



1212 Urritzolako Kontzejua



1213 Ondalan Koop.



1214 Basozainak





1215 Magotteaux enpresa



1216 Etxarrengo Kontzejua



1217 Lacturale



1218 Pikuxar



1219 Irurtzungo Udala



1220 Atakondoa



1221 Aizpea Euskara Taldea



1222 Orritz Dantza Taldea



1223 Iratxo elkarte





1224 Ilundain Fundazioa



1224B Hydro-ko langileak eta enpresa



1225 Altsasuko kuadrilla



1226 GUAIXE FUNDAZIOA

euskaltzaleen topagunea

GERO ETA ALDEKO GEHIAGO

TEJIENDO ALIANZAS

2024/04/17. Iruñeko Kondestablearen Jauregia.





Aitor Irigoien eta Edurne Ruiz AEK-ko irakasleak Korrikako furgonetan, animazio lanetan. Giro ederra sortu zuten.

"Sakanaz harro, beti; orain euskaraz aritzea falta zaigu"

2.800 lekuko-aldaketa, 4.900 eramaile eta 11 egun eta 10 gau pasa ondoren, 23. Korrikak bere ibilbidea despeditu du. AEK-ko Itsasi euskaltegiko Korrika arduradun Aitor Irigoienek Sakanaren erantzuna eskertu du, eta euskaraz hitz egitea eskatu du

Alfredo A. eta Maider B. SAKANA

1 Korrikako lanak despedituta, lasaiago?

Oraindik ez ditugu lanak despeditu, kontuak lotu behar dira. Baina Korrika Sakanatik pasata, beste lasaitasun bat izan zen.

2 Korrikako furgonetatik zer ikusten da?

Jende asko, eta jendea pozik ikusten da, gustura, alai. Giro ona ikusten da. Batzuk arnases-tuka, sasoi ona dutenak paseatzen egongo balira bezala... denetatik.

3 Zer sentitzen da furgoneta gainean egonda?

Jendea animatzen joatea niretako sekulako esperientzia da. Lan polita. Halako gorakada moduko

bat ematen dizu. Eta hunkigarria ere bada. Agian zailtasuna duen jendea korrika ikusten duzu, edo lekukoa hartzen... eta horrek hunkitu egiten du. Sakanan beti ongi ateratzen da Korrika.

4 Sakanan edo kanpo, korrika egiteko aukera izan duzu?

Aurten ez dut korrika egin. Furgoneta batetik jaitsi eta bestean

igotzeko momentua, hori da egin dudana korrika bakarra.

5 Askok makina bat km egin dituzte zuzeneko emanaldia ikusten. Zuk ere zuzeneko emisioa jarraitu al duzu?

Korrika Iruñean zegoela jarri nuen pixka bat, eta izan zen justu Asironen lekukoa hartu zuen une hori. Hori bakarrik. Gero Sakanako argazkiak ikusi ditut, bideoren bat ere, jendearen errikoak eta biralak egin diren bideo horiek.

6 Zuzeneko emanaldiak %25 igo omen dira.

Korrikak jendea ukitzen du. Jende askok parte hartzen duen ekitaldia da, jendeari barruraino heltzen zaiona. Horregatik jendeak jarraitu du hainbeste zuzenean, eta Iruñera joan da edo azken egunean Baionara. "Nik ez dut korrika egingo, baino jaiki eta ikusi bai" diote askok. Zerbait badu Korrikak. Jende guztia euskararen alde dagoela pentsatu nahi dut, baina gero praktikatzea falta da. Mikrofonotik esan genuen ondo dagoela Korrikan parte hartzea, baina mihia pixka bat astindu eta euskaraz hitz egitea, hori da egin behar dena.

7 AEK-k Azterketak Euskaraz egitea aldarrikatzen ari diren Iparraldeko ikasleak omendu ditu. Sakanan aldarrikapena ikusi zen?

Bai. Esaterako, Andra Mari ikastolako hiru kilometrotan karte-lak atera zituzten, eta uste dut besteren batean baita ere. Aldarri hori ikusi zen Sakanan.

8 Korrika Sakanatik pasa ahala, furgonetatik jaitsi eta Pikuxa-

rren gosaldu zenuten. Han egin al zenuten lehen balorazioa?

Sakanako hasierako balorazioa oso erraza da, beti positiboa da. Zenbat jende zegoen toki guztietan, asko. Baina Altsasun flipatu genuen gehien; beti egoten da jendea, baina aurtengoa ikusgarria izan zen. Benetako balorazioa Aste Santua pasata egingo dugu, kontu guztiak itxita daudenean.

9 Sakanako herriaz harro? Eta konforme?

Sakanaz oso harro, baina beti. Eta Korrika garaian gehiago oraindik. Konforme? Euskararen erabilera, hori da falta dena. Erabileran denok dugu hobetu beharra, Sakanan ere, eta asko. Sakanan instituzioen babes dugu, baina Euskal Herri mailan, epaitegi mailan... euskararen dako babes juridikoa eta administratiboa behar dugu, eta euskara zabaltzeari horrenbeste traba ez jartzea.

10 Euskaltegira dohainik etortzea ere aldarrikapen bat izan daiteke.

Bai, euskara ikastea unibertsa-la izango litzatekeelako eta doakoa, eta hori garrantzitsua da. Askok falta zaigu horretarako, baina konplexurik gabe eskatuko eta exijituko dugu.

11 Badao Korrika, gera dadila euskara, hori zen garai bateko leloa. 24. Korrika beharko da?

Bai. Nahiz eta noizbait doakotasunera ailegatu, normaltasun batera iritsi... Korrika asko mugitzen duen jaialdi bat da, aldarrikatzeko modu bat eta jendea kontzientziatzeko modu bat. Uste dut Korrika urte askoz hor egongo dela, segurua.

HARRO HERRI
euskaraz

gk
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

619 821 436 - 948 564 275
info@gkomunikazioa.eus · Foru plaza, 23-1. Altsasu